

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa ( *Ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bidez sortuta* )

Helbidea: Nafarroa, 2 (Lehendakaritzaren egoitza)

01007 Vitoria-Gasteiz

IFZ.: S0100008B

### INFORMAZIO OROKORRA

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kontratu-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikagarri zaizkion xedapenetara egokituko da. (*Ekainaren 19ko 5/2008 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen Legearen 13.4 artikulua eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua (Martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua AFE), 24.1 artikulua*).
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako kontratazio-organoa zuzendaria izango da (*AFE 24.2 artikulua*).
- Agentziaren Kontseilu Errektoreak baimendu behar ditu 5.000.000 eurotik gorako balio estimatua duten kontratuak (*AFE 24.3 artikulua*).
- Agentzian, kontratazio-mahai bat egongo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuan xedatutakoaren arabera osatuko da (*AFE 24.3 artikulua*).
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia Urtarrilaren 20ko, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena aginduaren bidez sortzen da. Kontratazio Mahaia honako kide hauek izango ditu:

#### Mahaiburutza:

- Agentziako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna.

#### Mahaikideak:

- Kontratazio organoaren ordezkari bat
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat.
- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat, agentziari atxikia, Aholkularitza Juridikoko eta Mahaiaren Idazkaritzako eginkizunak izango dituena.